

<p>2010EKO ABENDUAREN 23AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA</p> <p>=====</p> <p><u>BILDUTAKOAK</u></p> <p><u>LEHENDAKARIA</u></p>	<p>ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 23 DE DICIEMBRE DE 2010.</p> <p>=====</p> <p><u>ASISTENTES</u></p> <p><u>PRESIDENTE</u></p>
---	---

Imanol Landa Jauregi Jn.

<u>ALKATEORDEAK</u>	<u>TENIENTES DE ALCALDE</u>
---------------------	-----------------------------

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
 Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)
 Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
 Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)

<u>ZINEGOTZIAK</u>	<u>CONCEJALES</u>
--------------------	-------------------

Begoña Ezkurra Ciruelos (EAJ-PNV)
 Aitor Soloeta Eraso (EAJ-PNV)
 Kepa Miñambres Llona (EAJ-PNV)
 Josu Loroño Goienetxe (EAJ/PNV)
 Álvaro González Pérez (EAJ/PNV)
 María Luisa Arrue Bergareche (P.P.)
 Eduardo Andrade Aurrecoechea (P.P.)
 Jesús Toca Toña (P.P.)
 Iñaki Gamero Delgado (P.P.)
 Raquel González Díez-Andino (P.P.)
 Josu Ahedo Ruiz (P.P.)
 Juan Luis Eguiluz Borde (P.P.)
 Jorge Grases García (P.P.)
 Jone Ruiz de Eguilaz Salazar (P.P.)

Álvaro Rodríguez Ratón (P.P.)
Luis Almansa Rubio (P.S.E.-E.E.)
Mercedes Angulo Ordozgoiti (P.S.E.-E.E.)
José Luis Cámara Ricondo (P.S.E.-E.E.)
Manuel Basanta Santiago (A.)

<u>IDAIZKARI NAGUSIA</u>	<u>SECRETARIO GENERAL</u>
---------------------------------	----------------------------------

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita Jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako goizeko hamarretan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita Kontuhartzailea, Luis Angel Corcuera Ruiz jauna, ere.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas y treinta minutos de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más el Sr. Interventor municipal don Luis Ángel Corcuera Ruiz.

Alkate jaunak, legeak eskatzen duen kide kopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio.

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión.

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Informazio Batzordea ezohiko bilera egiten ari zenez, bilera hau atzeratu da, eta hamarrak eta berrogeita bost minutu zirenean hasi da.

Tras el retraso motivado por la celebración de una reunión extraordinaria de la Comisión Informativa de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, siendo las diez horas y cuarenta y cinco minutos se inicia la sesión.

Gai-zerrenda jorratzen hasi aurretik, Alkateak esan du gai-zerrendan sartzeko puntu bat duela, larrialdia adierazi eta gero; hau da, defizit publikoaren murrizketa-neurriak onartzearen ingurukoa, maiatzaren 20ko 8/2010 ELDn arabera.

Previamente al inicio del tratamiento del orden del día, el Alcalde indica que presenta al Pleno, para su inclusión en el orden del día previa declaración de su urgencia, un punto relativo a la aprobación de las medidas de reducción del déficit público, en

Aurkeztutako proposamena Osoko Bilkuraren aurretik Informazio Batzordeak egindako bileran ebatzi berria izan da; horixe, beraz, larrialdiaren arrazoia.

Aurreko paragrafoan aipatutako proposamena bozkatu dute, eta aho batez onartua izan da.

Jarraian esan du gai-zerrendatik 202. puntua kendu egingo dutela.

Ondoren, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

198.- GETXOKO UDALAREN OSOKO BILKURAK 2010EKO HAZILAREN 26AN ETA ABENDUAREN 13AN HURRENEZ HURREN AZKENA EGINDAKO OHIKO ETA EZOHIKO BILERETAKO AKTAK ONESTE.

Getxoko Udalak azkena egin dituen bilkuren aktak onartu izan dira: 2010eko azaroaren 26ko ohiko bilkurarena eta 2010eko abenduaren 13eko ezohiko bilkurarena.

OGASUN, EKONOMIA, GIZA BALIABIDE ETA KONTUAK

199.- TRANSFERENTZIEN BIDEZ AURREKONTUAK ALDATZEAREN INGURUKO HONAKO ALKATETZA-LEHENDAKARITZA DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

cumplimiento del RDL 8/2010 de 20 de mayo. Justifica la urgencia en que la propuesta que se presenta acaba de ser dictaminada en la Comisión Informativa que se ha desarrollado previamente al Pleno.

Sometida la urgencia de la propuesta referida en el párrafo anterior a votación, es aprobada por unanimidad.

A continuación indica que retira del orden del día el punto nº 202.

Seguidamente se pasó a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

198º.- APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE LAS ANTERIORES SESIONES ORDINARIA Y EXTRAORDINARIA CELEBRADAS LOS DÍAS 26 DE NOVIEMBRE Y 13 DE DICIEMBRE DE 2010, RESPECTIVAMENTE.

Se aprobaron las Actas de las anteriores sesiones ordinaria y extraordinaria celebradas por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo los días 26 de noviembre y 13 de diciembre de 2010, respectivamente.

HACIENDA, ECONOMÍA, RECURSOS HUMANOS Y CUENTAS

199º.- DACIÓN DE CUENTA DE LOS DECRETOS DE LA ALCALDÍA-PRESIDENCIA NÚMS. 6061, 6068, 6112, 6115, 6175, 6176, 6250, 6267, 6351, 6353, 6420, 6424, 6435, 6452, 6455,

6061, 6068, 6112, 6115, 6175, 6176, 6250, 6267, 6351, 6353, 6420, 6424, 6435, 6452, 6455, 6458, 6459, 6464, 6478, 6480, 6483, 6484, 6488, 6511 eta 6515

6458, 6459, 6464, 6478, 6480, 6483, 6484, 6488, 6511, 6515, DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabideak eta Kontuen Informazio Batzordeak proposatuta, ondorengo erabaki zen:

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

Kreditu-transferentzien bidez aurrekontua aldatzearen inguruko Alkatetza-Lehendakaritza Dekretu hauen berri jakitea:

Quedar enterados de los siguientes Decretos de la Alcaldía-Presidencia, de modificación presupuestaria mediante el uso de Transferencias de Crédito:

2010eko azaroaren 11ko 6061 Dekretua, 75.000 eurokoa.
2010eko azaroaren 11ko 6068 Dekretua, 44.428,36 eurokoa.
2010eko azaroaren 16ko 6112 Dekretua, 17.000 eurokoa.
2010eko azaroaren 16ko 6115 Dekretua, 5.000 eurokoa.
2010eko azaroaren 22ko 6175 Dekretua, 61.200 eurokoa.
2010eko azaroaren 19ko 6176 Dekretua, 2.351,88 eurokoa.
2010eko azaroaren 30eko 6250 Dekretua, 7.230 eurokoa.
2010eko azaroaren 30eko 6267 Dekretua, 2.120,69 eurokoa.
2010eko azaroaren 30eko 6351 Dekretua, 4.534,66 eurokoa.
2010eko azaroaren 30eko 6353 Dekretua, 16.500 eurokoa.
2010eko abenduaren 2ko 6420 Dekretua, 16.910,58 eurokoa.
2010eko abenduaren 2ko 6424 Dekretua, 29.637,28 eurokoa.
2010eko abenduaren 3ko 6435 Dekretua, 10.000 eurokoa.
2010eko abenduaren 9ko 6452 Dekretua, 2.870 eurokoa.
2010eko abenduaren 3ko 6455 Dekretua, 10.000 eurokoa.
2010eko abenduaren 3ko 6458

Decreto nº 6061 de 11 de noviembre de 2010 por un importe de 75.000 €.
Decreto nº 6068 de 11 de noviembre de 2010 por un importe de 44.428,36 €.
Decreto nº 6112 de 16 de noviembre de 2010 por un importe de 17.000 €.
Decreto nº 6115 de 16 de noviembre de 2010 por un importe de 5.000 €.
Decreto nº 6175 de 22 de noviembre de 2010 por un importe de 61.200 €.
Decreto nº 6176 de 19 de noviembre de 2010 por un importe de 2.351,88 €.
Decreto nº 6250 de 30 de noviembre de 2010 por un importe de 7.230 €.
Decreto nº 6267 de 30 de noviembre de 2010 por un importe de 2.120,69 €.
Decreto nº 6351 de 30 de noviembre de 2010 por un importe de 4.534,66 €.
Decreto nº 6353 de 30 de noviembre de 2010 por un importe de 16.500 €.
Decreto nº 6420 de 2 de diciembre de 2010 por un importe de 16.910,58 €.
Decreto nº 6424 de 2 de diciembre de 2010 por un importe de 29.637,28 €.
Decreto nº 6435 de 3 de diciembre de 2010 por un importe de 10.000 €.
Decreto nº 6452 de 9 de diciembre de 2010 por un importe de 2.870 €.
Decreto nº 6455 de 3 de diciembre de 2010 por un importe de 10.000 €.
Decreto nº 6458 de 3 de diciembre de

Dekretua, 66.500 eurokoa.				2010 por un importe de 66.500 €.
2010eko abenduaren	3ko	6459		Decreto nº 6459 de 3 de diciembre de
Dekretua, 9.000 eurokoa.				2010 por un importe de 9.000 €.
2010eko abenduaren	3ko	6464		Decreto nº 6464 de 3 de diciembre de
Dekretua, 2.560 eurokoa.				2010 por un importe de 2.560 €.
2010eko abenduaren	3ko	6478		Decreto nº 6478 de 3 de diciembre de
Dekretua, 2.355 eurokoa.				2010 por un importe de 2.355 €.
2010eko abenduaren	3ko	6480		Decreto nº 6480 de 3 de diciembre de
Dekretua, 51.723,74 eurokoa.				2010 por un importe de 51.723,74 €.
2010eko abenduaren	3ko	6483		Decreto nº 6483 de 3 de diciembre de
Dekretua, 23.658,75 eurokoa.				2010 por un importe de 23.658,75 €.
2010eko abenduaren	3ko	6484		Decreto nº 6484 de 3 de diciembre de
Dekretua, 21.240 eurokoa.				2010 por un importe de 21.240 €.
2010eko abenduaren	3ko	6488		Decreto nº 6488 de 3 de diciembre de
Dekretua, 5.667 eurokoa.				2010 por un importe de 5.667 €.
2010eko abenduaren	9ko	6511		Decreto nº 6511 de 9 de diciembre de
Dekretua, 12.000 eurokoa.				2010 por un importe de 12.000 €.
2010eko abenduaren	9ko	6515		Decreto nº 6515 de 9 de diciembre de
Dekretua, 30.000 eurokoa.				2010 por un importe de 30.000 €.

**200.- NATURGAS ENERGIA
KOMERTZIALIZAZIO TALDEAREN
FAKTURAREN GASTUA
ONARTZEA ETA ORDAINTZEA**

Proposamena irakurri ondoren, bozketa egin dute, eta emaitza hau izan da: aldeko 11 boto EAJrenak eta A-renak eta 13 abstentzio PP eta PSE-EErenak.

Ondorioz, Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabideak eta Kontuen Informazio Batzordeak proposatuta, ondorengo erabaki zen gehiengoz:

“NATURGAS ENERGIA KOMERTZIALIZAZIO TALDEAREN” (IFK: A95000295) fakturaren gastua onartzea eta ordaintzea. Faktura Maidagan kaleko 32B-ko gas-hornidura dela-eta egin da eta 2009koa da. Fakturaren zenbatekoa, guztira,

200º.- RECONOCIMIENTO DE LA OBLIGACIÓN Y ABONO DE FACTURA DE NATURGAS ENERGÍA COMERCIALIZADORA, S.A.U.

Tras darse lectura a la propuesta se somete a votación, con el siguiente resultado: 11 votos a favor del PNV y A y 13 abstenciones del PP y del PSE-EE.

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó por mayoría:

Reconocer la obligación del gasto y el pago de la factura de “NATURGAS ENERGÍA COMERCIALIZADORA, S.A.U.”, con C.I.F. A95000295 derivadas del suministro de gas en la calle Maidagan, 32 B, correspondiente al año 2009, por importe total de 3.116,99

3.116,99 euro, BEZ barne.

euros, I.V.A. incluido.

**201.- GETXO ANTZOKIA ETA
SANTA EUGENIAREN PROIEKTUEI
DAGOZKIEN KONPROMISO-
KREDITUAK ALDATZEA**

Proposamena irakurri eta gero, Andrade jaunak adierazi du alderdi Popularrak aurkako botoa emango duela, proposamenak Getxoko udalerriaren etorkizuna arriskuan jartzen duelako. Aurreikusitako jardueren arabera, Getxoko Antzokiarentzat 40 milioi euro behar dira eta Erromoko Kultur Etxearentzat 7 milioi. Horrela, inbertsio horiek ez dira koherenteak bizi dugun krisi-egoerarekin. Inbertsio horiek egiteko, etorkizunerako hipotekak beharko dira, eta, aurreikusitako maileguen interes eta amortizazioetan bakarrik, 4,5 milioi euro behar dira. Horiei 2012rako lurzorua erosteko behar diren kredituak gehitzen badizkiegu, ekitaldi horretan 6,5 milioi eurora iritsiko gara, eta kopuru hori 2010. urterako aurrekontuan inbertsioetarako dauden kredituen kopurua baino handiagoa da. Alderdi Popularrak jakin badaki Erromon kultur etxea behar dela, baina ez zazpi solairukoa eta 7 milioi eurokoa, pentsatu duten moduan. Inguruan bertan, eraikinetan udal-jarduerak egiteko aurreikuspenak egin dira, eta horien bidez arazoa konpon daiteke. Horrela, tokiko gobernura iristen badira, proiektua berdimentsionatzeko konpromisoa hartuko dute. Gogoratu du Alkateak prentsaurreko batean esan zuela alderdi Popularrak Erromoko

**201º.- MODIFICACIÓN DE
CRÉDITOS DE COMPROMISO
CORRESPONDIENTES A LOS
PROYECTOS GETXO ANTZOKIA Y
SANTA EUGENIA.**

Tras dar lectura a la propuesta interviene el Sr. Andrade para indicar que el grupo Popular votará en contra ya que la propuesta hipoteca el futuro de Getxo, porque las actuaciones previstas importan 40 millones de euros para el Getxo Antzokia y 7 millones para la Kultur Etxea de Romo, inversiones que no son coherentes con la situación de crisis que se está padeciendo. Indica que ejecutar estas inversiones conllevará unas hipotecas para el futuro, que ya únicamente, en concepto de intereses y amortizaciones de los préstamos previstos ascienden a 4,5 millones de euros, que unidos al desplazamiento de los créditos para las dotaciones de adquisición de suelo para el año 2012 suman 6,5 millones de euros para dicho ejercicio, cuantía que sobrepasa los créditos existentes en el presupuesto del año 2010 para inversiones. El grupo Popular entiende que Romo necesita un centro cultural, pero no de siete plantas como el proyectado, y con un coste de 7 millones de euros, ya que en la propia zona existen previsiones de actuaciones municipales en edificios, que pueden ayudar a resolver el problema y se comprometen a que si acceden al gobierno local redimensionarán el proyecto. Recuerda que el Alcalde en una rueda de prensa ha manifestado que el grupo Popular pretende apartar

bizilagunak bereiztu nahi dituela, Gobernu taldeak aurkeztutako jarduerak ez babesteagatik. Andrade jaunaren ustez, Erromo estutzen dute zerga hain altuek, trafikoak, aparkaleku-ezak, Gobela ibaiaren inguruan konpondu gabeko arazoak, saneamendu eskasak eta abarrek. Egoera horren erantzulea Gobernu taldea da. Alderdi Popularrak, legegintzaldiaren hasieran, proiektu bat aurkeztu zuen, eta, haren arabera, Gobela ibaia Geltoki plazan ireki egingo zen, baina, ondoren, bizilagunekin hitz egin eta gero, beste proiektu bat aurkeztu dute, iritzi publikoa eta bizilagunena kontuan hartuta, eta ez da dagoeneko ireki beharrik ikusten.

Manu Basantak adierazi du inbertsioen inguruko aurreko jarrerekin bat eginez, aurkako botoa emango duela, inbertsio handi horiek koherenteak ez izateagatik krisi-garaian; gainera, ez dira haren alderdiak nahi duen hazkunde-erakoak.

Joseba Arregik Gobernu taldearen izenean adierazi du kreditua obra egiteko plan berrira doitzen dela, eta gogoratu du Erromoko Kultur Etxearen proiektua alderdi Popularrak eta Alternatibak babestu zutela; beraz, ez du ulertzen nola izan litekeen koherentea babestutako proiektu baten aurka bozkatzea. Inbertsioak estatuko legediak baimendutako zorpetze-ahalmenaren mugetara doitzen dira eta epeak obraren errealitatera moldatu.

Andrade jaunak gogoratu du alderdi Popularrak aurkeztutako proiektuaren

a los vecinos de Romo por no apoyar las actuaciones que presenta el equipo de Gobierno, pero estiman que lo que está asfixiando a Romo son los impuestos tan elevados, el tráfico, la falta de aparcamientos, la problemática no resuelta del río Gobela, los saneamientos deficientes, etc. situación de la que es responsable el equipo de Gobierno. Manifiesta que el grupo Popular al inicio de la legislatura sí presentó un proyecto que suponía la apertura del río Gobela en la plaza de la Estación, pero que posteriormente, tras hablar con los vecinos, han presentado un nuevo proyecto contrastado con la opinión pública y los vecinos, que no contempla ya dicha apertura.

Manu Basanta manifiesta que en coherencia con sus posiciones anteriores en relación a estas inversiones, va a votar en contra porque estima que no son coherentes este tipo de grandes inversiones en situación de crisis, y tampoco son el modelo de crecimiento que su grupo defiende.

Joseba Arregi en nombre del equipo de Gobierno indica que la propuesta es un ajuste del crédito al nuevo plan de ejecución de la obra, recordando que el proyecto de la Kultur Etxea de Romo fue apoyado por el grupo Popular y Alternatiba, por lo que no entiende que sea coherente votar en contra de un proyecto que apoyaron. Manifiesta que las inversiones se ajustan a los límites de capacidad de endeudamiento que la legislación estatal permite, y los plazos se acompañan con la realidad de la obra.

El Sr. Andrade recuerda que el grupo Popular en julio del 2010 votó en contra

aurka bozkatu zuela 2010eko uztailean, nahiz eta alderdi Popularreko ordezkari batek parte hartu proiektua hautatzeko batzordean eta aurkeztutakoa babestu izan. Alderdiaren jarrera ulertzekoa da dagoen egoera ekonomiko eta aurrekontuan. Berriro dio Getxok kultur instalazioa behar duela, baina txikiagoa, eta, txikiagoa izanagatik, instalazio duina izaten jarraituko du; gainera, inguruan Udalak dituen beste eraikinek inguruneak behar dituen premiak betetzen lagun dezakete. Proposamenak ordainketak atzeratzen ditu etorkizuneko ekitaldietara.

Manu Basantak gogoratu du inoiz ez duela botorik eman Getxo Antzokiaren eta Erromoko Kultur Etxearen alde.

Aipatu proposamena bozkatu dute, eta emaitza ondorengo izan da: aldeko 13 boto EAJ eta PSE-EErenak eta aurkako 11 boto PP eta A-renak.

Ondorioz, Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabideak eta Kontuen Informazio Batzordeak proposatuta, ondorengo erabaki zen gehiengoz:

Getxo Antzokiaren eta Santa Eugeniaren proiektuei dagozkien 2011ko eta 2010eko konpromiso-kredituak aldatzea. Hona hemen berriak:

del proyecto que se presentó, si bien es cierto que un representante del grupo Popular participó en la comisión de selección del proyecto, apoyando el presentado. Justifica la postura de su grupo en la situación económica y presupuestaria existente. Insiste que Getxo necesita una instalación cultural, pero con menor dimensión, sin que por ello deje de ser una instalación digna, contando además en el entorno con otros edificios municipales que pueden también colaborar a dar respuestas a las necesidades del entorno. Finaliza indicando que la propuesta lo que hace es aplazar pagos para ejercicios futuros.

Manu Basanta recuerda que él nunca ha votado a favor del Getxo Antzokia ni a favor de la Kultur Etxea de Romo.

Sometida la propuesta de referencia a votación, obtiene el siguiente resultado: 13 votos a favor del PNV y PSE-EE y 11 en contra del PP y A.

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó por mayoría:

Modificar los créditos de compromiso para los años 2011 y 2010, correspondientes a los proyectos Getxo Antzokia y Santa Eugenia, sustituyéndolos por los siguientes:

Proiektua / Proyecto	Partida / Partida	Konpromiso-kredituak / Créditos de compromiso			
		2011	2012	2013	Batuketa / Suma
Getxo Antzokia	03.4510.62700	8.103.235	6.583.111	7.500.000	22.186.346
Santa Eugenia	03.4510.62700	355.231	5.519.478		5.874.709

202º.- DEFIZIT PUBLIKOA MURRIZTEKO NEURRIAK ONARTZEA, ETA MAIATZAREN 20KO 8/2010 ERREGE DEKRETUA BETETZEA.

Horraکو espediente hori kendu izan da

LEHENDAKARITZA

203.- GETXO KIROLAK TEA-REN LEHENDAKARITZAKO ETA KONTSEILU ARTEZKARIKO INFORMAZIO-BATZORDEAREN OSAERA ALDATZEA, UDAL TALDE SOZIALISTARI DAGOKIONEZ

Lehendakaritzako Informazio Batzordeak proposatuta, ondorengo erabaki zen aho batez:

“Getxo Kirolak” Tokiko Erakunde Autonomoaren Lehendakaritzako eta Kontseilu Artezkariako Informazio Batzordearen Osaera aldatzea, PSE-EE (PSOE) Udal Talde Sozialistari dagokionez. Batzordekide titular gisa Mercedes Angulo Ordozgoiti andrea izendatu da, hil berria den Ricardo Villanueva Marcos jaunaren ordeiz.

202º.- APROBACIÓN DE LAS MEDIDAS DE REDUCCIÓN DEL DÉFICIT PÚBLICO, Y CUMPLIMIENTO DEL REAL DECRETO LEY 8/2010 DE 20 DE MAYO.

Fue retirado el expediente de referencia.

PRESIDENCIA

203º.- MODIFICACIÓN DE LA COMPOSICIÓN DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE PRESIDENCIA Y CONSEJO RECTOR DEL OAL GETXO KIROLAK EN LO QUE EL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA SE REFIERE.

A propuesta de la Comisión Informativa de Presidencia, se acordó por unanimidad:

Modificar la composición de la Comisión Informativa de Presidencia y del Consejo Rector del Organismo Autónomo Local “Getxo Kirolak”, en lo que al Grupo Municipal Socialista PSE-EE (PSOE) se refiere, nombrando vocal titular a la concejala doña Mercedes Angulo Ordozgoiti en sustitución de don Ricardo Villanueva Marcos, recientemente fallecido.

**204.- LETRATUA IZENDATZEA
ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-
ERREKURTSOAN AGERTZEKO,
ELA SINDIKATU-
KONFEDERAZIOAK 2010.06.25EKO
OSOKO BILKURAKO 103
AKORDIOAREN AURKA
JARRITAKO 1310/10 PROZEDURA
ARRUNTA**

Proposamena irakurri eta gero bozketa egin da, eta emaitza ondorengoa izan da: aldeko 10 boto EAJrenak eta 14 abstentzio PP, PSE-EE eta A-renak.

Ondorioz, Lehendakartzako Informazio Batzordeak proposatuta, ondorengoa erabaki zen gehiengoz:

1. ELA Sindikatu Konfederazioak 2010eko ekainaren 25eko Osoko Bilkuran hartutako akordioaren aurka jarritako 1310/10 prozedura arruntean agertzea. Akordio horren bidez, beharrezko neurriak hartu ziren maiatzaren 20ko 8/2010 ELDn ezarritakoa betetzeko, Udal honetako langile funtzionarioen eta lan-kontratudun langileen ordainsariak murriztearen inguruan.

2.- Udalaren defentsa izendatzea prozedura honetarako Udal Zerbitzu Juridikoei.

**HIRIGINTZA, OBRA ETA
ZERBITZUAK**

**205.- GETXO ANTZOKIA
BERRIAREN (1. FASEA:**

**204º.- DESIGNACIÓN DE LETRADO
PARA LA PERSONACIÓN EN
RECURSO CONTENCIOSO
ADMINISTRATIVO,
PROCEDIMIENTO ORDINARIO
1310/10 INTERPUESTO POR LA
CONFEDERACIÓN SINDICAL ELA
CONTRA ACUERDO.DE PLENO Nº
103, DE 25.6.2010.**

Tras darse lectura a la propuesta se somete a votación, con el siguiente resultado: 10 votos a favor del PNV y 14 abstenciones del PP, PSE-EE y A.

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión Informativa de Presidencia, se acordó por mayoría:

1. Personarse en el procedimiento ordinario 1310/10 interpuesto por la Confederación Sindical ELA, contra el Acuerdo de Pleno de 25 de junio de dos mil diez, por el que se adoptan las medidas necesarias para dar cumplimiento a lo dispuesto en el RDL 8/2010, de 20 de mayo en lo relativo a la reducción de retribuciones del personal funcionario y laboral de este Ayuntamiento.

2.- Asignar la defensa del Ayuntamiento en el presente procedimiento a los Servicios Jurídicos municipales.

URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS

**205º.- INICIO DE EXPEDIENTE DE
MODIFICACIÓN DEL CONTRATO**

INDUSKETA) ERAIKUNTZAKO
OBRA-PROIEKTUAN JASOTAKO
OBRAK GAUZATZEKO
ESLEITUTAKO KONTRATUA
ALDATZEKO ESPEDIENTEARI
HASIERA EMATEA

ADJUDICADO PARA EJECUCIÓN
DE LAS OBRAS COMPENDIDAS
EN EL PROYECTO DE OBRAS DE
EJECUCIÓN DE CONSTRUCCIÓN
DEL NUEVO GETXO ANTZOKIA.
FASE 1: EXCAVACIÓN.

Proposamena irakurri eta gero, Eduardo Andrade jaunak adierazi du Alderdi Popularrak proposamenaren aurka bozkatuko duela; hau da, kontratua %8 aldatzearen kontra. Getxoko Udalean kontratuak desbideratzea ohikoa da; azken 3 hilabetetan, obrak bi milioi eurotik gora igo dira. Horrela, obra ezberdinen inguruko datuak eman ditu. Andrade jaunak, gainera, azaldu du, aldaketa obra amaitzeko aurreikusitako epeaz kanpo aurkeztu denez, kontratistari erantzukizunak eskatuko dizkiotela. Alderdi Popularra proiektu horren aurka dago, errealitate ekonomikora ez egokitzeagatik. Gobernu taldeak egungo egoera ekonomikoaren gaineko hausnarketa egin beharko luke, beste administrazioak egiten ari diren moduan ekipamenduak dimentsionatze aldera; esate baterako, Donostiako Udalak Tabakalerarekin egin duenaren antzera. Amaitzeko, esan du Gobernu taldeak ez duela modu serioan lan egiten, ez dituela ustiapen-kostuak eta etorkizunerako efektu ekonomikoak baloratzen, egungo egoera ekonomikoa aintzat hartuta.

Tras dar lectura a la propuesta interviene Eduardo Andrade que manifiesta que el grupo Popular va a votar en contra de la propuesta que supone modificar el contrato en un 8%. Indica que las desviaciones en los contratos es algo habitual en el Ayuntamiento de Getxo, y que en los últimos 3 meses han supuesto incrementos en las obras de más de dos millones de euros, aportando datos de diferentes obras. Manifiesta también que la modificación se presenta fuera del plazo previsto de finalización de la obra, por lo que supone que se pedirán responsabilidades al contratista. Recuerda que el grupo Popular está en contra de este proyecto ya que no se ajusta a la realidad económica, y critica que el equipo de Gobierno no reflexione sobre la situación económica actual, como están reflexionando otras administraciones en orden a dimensionar los equipamientos, poniendo de ejemplo la actuación del Ayuntamiento de Donostia con el centro Tabacalera. Finaliza indicando que la actuación del equipo de Gobierno refleja que no trabaja de forma seria, valorando costes de explotación y efectos económicos a futuro, teniendo en cuenta la actual situación económica.

Joseba Arregik Gobernu taldearen izenean adierazi du dagokion Informazio Batzordean obra-kontratuen aldaketen berri emango dutela. Era horretako egoerak soilik gertatu dira Zapatero

Joseba Arregi en nombre del equipo de Gobierno manifiesta su disposición a informar de las modificaciones de los contratos de obras en la correspondiente Comisión Informativa,

Planak finantzaturiko obretan. Zehazki, obra honi dagokionez, proposamenean ez da inolako igoera ekonomikorik jasotzen, eta obra epearen barruan amaitu da. Amaitzeko esan du Getxo Antzokiaren proiektuak Osoko Bilkuran aldeko botoak jaso dituela bederatz alditan.

Manu Basantak Arregi Jaunari adierazi dio ez dagoela ados esatean obrak Zapatero Planarekin finantzatu direla, horrek ematen baitu dirua Gobernuko Lehendakariak jartzen duela, eta berez herritarren zergetatik dator.

Andrade jaunak esan du PNV/PSE-EE koalizioaren jarduerak aipatu nahi zituela lehen, gai honetan eta beste askotan ari baitira funtzionatzen azken bi urtetan. Obra batzuetan aurrekontu-desbideratzeak gertatu dira, eta ez dira Zapatero Planarekin finantzatu. Berritio dio administrazioen proiektuak egungo eta etorkizuneko egoera ekonomikora eta egoera kritikora egokitu behar direla. Getxoko Gobernu taldeak, ordea, ez du era horretako hausnarketarik egin nahi, ez eta proiektuen bideragarritasun ekonomikorik aztertu nahi ere.

Arregi jaunak erantzun dio proiektua Getxoko duintasun kulturalaren araberakoa dela, eta ez dakiela zeintzuk izango lirartekeen alderdi Popularraren proiektuak, inoiz aurkeztu ez dituelako. Era berean, kontraesankorra iruditzen zaio alderdi Popularra arrazoiz ekonomikoak aipatzen ibiltzea, Gobernu taldeari etengabe kritikak egiten dizkionean, epe jakinerako 43 milioi

indicando que estas situaciones se han producido básicamente en aquellas obras financiadas por el Plan Zapatero. Respecto a esta obra en concreto manifiesta que la propuesta no recoge ningún incremento económico y que la obra se ha finalizado dentro del plazo. Finaliza manifestando que el proyecto del Getxo Antzokia ha sido votado favorablemente en el Pleno en nueve ocasiones.

Manu Basanta manifiesta al Sr. Arregi su disconformidad a que las obras se refiera como financiadas por el Plan Zapatero ya que parece indicar que el dinero lo pone el Presidente del Gobierno cuando vienen de los impuestos de los ciudadanos.

El Sr. Andrade indica que lo que ha manifestado se refiere a las actuaciones de la coalición PNV/PSE-EE que viene funcionando de hecho en esta cuestión y en otras muchas en los dos últimos años. Recuerda obras en las que han existido desviaciones presupuestarias y que no son financiadas por el Plan Zapatero. Insiste en la necesidad de adecuar los proyectos de las administraciones a la situación económica presente y venidera, y critica que en Getxo el equipo de Gobierno no quiere hacer este tipo de reflexiones ni quiere estudiar la viabilidad económica de los proyectos.

El Sr. Arregi contesta que el proyecto responde a la dignidad cultural de Getxo y además se desconoce cuales serían los proyectos del grupo Popular ya que nunca los ha presentado. También le parece contradictorio que el grupo Popular acuda a razones económicas mientras que por otro lado constantemente critica al equipo de Gobierno manifestando que tiene 43

dituela esanez.

Andrade jaunak azaldu du kultura-duintasunak bere mugak dituela, eta lehentasunezko gastuak badaudela arlo sozialean, beste arlo batzuetako gehiegizko gastuen aurrean. Poza hartzen du Gobernu taldeak dirua epe jakinera duela aitortzearekin. Berriro dio proposamenak aurrekontu-konpromisoak sortuko dituela 2011 eta 2013 arteko etorkizuneko ekitaldietara.

Aipatu proposamena bozkatu dute, eta emaitza ondorengo izan da: aldeko 13 boto EAJ eta PSE-EErenak eta aurkako 11 boto PP eta A-renak.

Ondorioz, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen Informazio Batzordeak proposatuta, ondorengo erabaki zen gehiengoz:

LEHENA.- GETXO ANTZOKIA BERRIAREN (1. FASEA: INDUSKETA) ERAIKUNTZAKO OBRA-PROIEKTUAN jasotako obrak egiteko, UTE CONSTRUCCIONES EXISA, SArI eta TECSA EMPRESA CONSTRUCTORA SArI esleitutako kontratua aldatzea onartzea eta espedienteari hasiera ematea baimentzea.

Aldaketa horren bidez, ebazpen honen Aurrekarietan aipatutako txostenetan proposatutako prezio kontrajarriak onartzea eta aipatu kontratuko prezioen koadroan sartzea, esleipenaren zenbatekoa eta lizitazio-tasa gehitu gabe eta, beraz, gastu berria baimendu beharrik gabe.

millones a plazo fijo.

El Sr. Andrade expone que la dignidad cultural también tiene sus límites, y que hay gastos preferentes en ámbitos sociales respecto a unos gastos excesivos en otros ámbitos. Le alegra que el equipo de Gobierno reconozca que tiene el dinero a plazo fijo e insiste en que la propuesta lo que hace es trasladar compromisos presupuestarios a ejercicios futuros entre el 2011 y el 2013.

Sometida la propuesta de referencia a votación obtiene el siguiente resultado: 13 votos a favor del PNV y PSE-EE y 11 en contra del PP y A.

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios, se acordó por mayoría:

PRIMERO.- Autorizar el inicio del expediente y aprobar la modificación del contrato adjudicado a la U.T.E. CONSTRUCCIONES EXISA, S.A. Y TECSA EMPRESA CONSTRUCTORA, S.A., para la ejecución de las obras comprendidas en el PROYECTO DE OBRAS DE EJECUCIÓN DE CONSTRUCCIÓN DEL NUEVO GETXO ANTZOKIA. FASE 1: EXCAVACIÓN.

Dicha modificación consiste en la aprobación de los precios contradictorios propuestos en los informes referidos en los Antecedentes de Hecho de esta resolución y su incorporación al cuadro de precios del contrato de referencia, sin que se de incremento del importe de adjudicación ni del tipo de licitación y sin tener, por tanto, que autorizar nuevo gasto.

BIGARRENA.- Akordio honen berri ematea esleipendunari aldaketa administrazio-agirian nahitaez gauzatzeko. Hori egiteko 15 laneguneko epea emango da, jakinarazpena egiten den egunetik aurrera kontatzen hasita.

SEGUNDO.- Notificar este acuerdo a la adjudicataria para la preceptiva formalización de la modificación en documento administrativo, la cuál se llevará a cabo dentro del plazo de 15 días hábiles a contar desde la notificación.

206.- GHAPN-KO ALDAKETA PUNTUALARI HASIERAKO ONESPENA EMATEA, "ORMAZA" 422 EGIKARITZE-UNITATEAN, PROMOTORA VIZCAINA ABEE-KO ORDEZKARITZAK ESKATUTA

206º.- APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL PGOUG EN LA UNIDAD DE EJECUCIÓN 42.2-"ORMAZA", INSTADO POR LA REPRESENTACIÓN DE P.V. PROMOTORA VIZCAINA U.T.E.

Proposamena irakurri ondoren, Gomero jaunak adierazi du alderdi Popularrak puntu honetan eta hurrengoan aurkako botoa emango duela, Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren osotasun-irizpidea izateagatik, proposamen partzial horiek HAPLren osotasunean eragina duten bitartean. Alderdi Popularra zona urbanoak gorantz berdensifikatzearen alde dago eraikigarritasun handiagoa biltzeagatik eta, era horretan, Andra Mari bezalako beste zona batzuek eraikigarritasunetik askatzeagatik. Gainera, modu horretan, LPPeren bidez sortutako efektuak saihestuko lirатеke, udalerrarentzat hori gaitza besterik ez da eta. Duela urtebete, Gobernu taldeak eta alderdi Sozialistak itundutako Etxebizitza Plana aurkeztu zen, inolako justifikaziorik gabe premia batzuk zenbatu zituen. Gogoratu du HAPNk jarduteko aukera batzuk eskaintzen dituela etxebizitza arloan. HAPNren berrikuspenean atzeratzen ari da legegintzaldiaren hasieran aipatutako egutegitik, eta beldur da berrikuspen

Tras dar lectura a la propuesta interviene el Sr. Gamero para indicar que el grupo Popular en este punto y en el siguiente va a votar en contra de los mismos porque tienen un criterio de Plan General de Ordenación Urbana en globalidad y estas propuestas parciales inciden en la globalidad del PGOU. Recuerda la postura del grupo Popular favorable a redensificar al alza de las zonas urbanas para concentrar mayor edificabilidad y liberar así de edificabilidad otras zonas del municipio como la de Andra Mari, y evitar así los efectos derivados del PTP al que califica como una enfermedad para el municipio. Recuerda que se presentó hace un año un Plan de Vivienda pactado entre el equipo de Gobierno y el grupo Socialista, que cifra unas necesidades sin ninguna justificación, recordando que el PGOU en su desarrollo tiene posibilidades de actuación en materia de vivienda. Indica que la revisión del PGOU se está retrasando sobre el calendario indicado a principio de legislatura, y teme que la

hori hauteskundeen aurretik esleitzea, korporazio berriari aurkeztutako aurrerapena LPPERen mendeko agiria izateko (dokumentu hori Gobernu taldeak eta alderdi Sozialistak babesten dute). Amaitzeko, berriro azpimarratu nahi izan du hirigunea berdentsifikatzea dela konponbidea, LPPERen gaitza saihestearren.

Joseba Arregik kritikatu du alderdi Popularrak egindako adierazpenek ez dutela inolako zerikusirik aurkeztutako proposamenekin. LPPERek ez du eskatzen etxebizitza-kopuru zehatz bat egiterik, betebeharra zero etxebizitzakoa baita. Legegintzaldi honetan, hirigintza-garapeneko plangintza guztiek alderdi Popularraren aurkako jarrera izan dute. Kasu honetan ere aurkako botoa emango dute, Zubilletan, BOE etxebizitza gehiago eraikitzeko egingo duten goranzko berdentsifikatzearen aurka ere bai.

Gomero jaunak adierazi du alderdi Popularrak aurka bozkatuko duela hirigunean etxebizitza gehiago egitea nahi duelako, eta horixe adierazi zuten Zubilletako aldaketaren hasierako onespenean. Horrela, alderdi Popularraren adierazpenen ondorioz, Gobernu taldeak ingurua berdentsifikatu du. Ormazako proposamenari dagokionean, hasierako onespena izanik, hobe daiteke proposamen berriak kaltetutako jabeen eskubide finkatuei elkartuta. Amaitzeko esan du, LPPERek Udaleko alderdiak banantzen baditu eta, Gobernu taldearen arabera, zero etxebizitzakoa bada, egokiena litzatekeela LPP bereiztea HAPNren berrikuspenetik.

revisión se adjudique antes de las elecciones para que el avance que se presente a la nueva corporación, sea un documento subordinado al PTP, documento que apoyan tanto el equipo de Gobierno como el grupo Socialista. Finaliza insistiendo en que la redensificación de la zona urbana es la solución para evitar la enfermedad del PTP.

Joseba Arregi critica que las manifestaciones del grupo Popular nada tienen que ver con las propuestas presentadas, recordando que el PTP no obliga a un número determinado de viviendas ya que la obligación es de cero viviendas. Manifiesta que en esta legislatura todos los planteamientos de desarrollo urbanístico se han encontrado con la oposición del grupo Popular, que en esta ocasión va a votar en contra, incluso contra una redensificación al alza como es en Zubilleta, para mayor construcción de viviendas de VPO.

El Sr. Gamero manifiesta que el grupo Popular votará en contra porque quiere conseguir mayor número de viviendas en la zona urbana y esta misma manifestación se hizo en la aprobación inicial de la modificación de Zubilleta, y a consecuencia de las manifestaciones del grupo Popular el equipo de Gobierno ha redensificado esta zona. Respecto a la propuesta de Ormaza, al tratarse de una aprobación inicial estima que se puede mejorar conjugando incluso las nuevas propuestas con los derechos consolidados que puedan existir de propietarios afectados. Finaliza indicando que si el PTP es lo que divide a los grupos municipales del Ayuntamiento y según el equipo de Gobierno es igual a cero viviendas

Almansa jaunak adierazi du alderdi Popularrak arazoak modu artifizialean sortu nahi dituela, banantzeko eta guztiaren aurrean agertzen duten jarrera negatiboa justifikatzeko. Alderdi edo talde bakoitzari entzun nahi dutena esaten diote, eta soilik hauteskunde-interesak bilatzen dituzte, udalerraren interes orokorra kontuan hartu gabe. LPPeak ez du zerikusirik aurkeztutako proposamenekin, BOE etxebizitza gehiago eraiki nahi baitituzte. Ormazako zona berdentsifikatzea erokeria urbanistikoa litzateke eragingo lukeen inpaktuarengatik. Zubilletako proposamenak, gainera, BOE etxebizitza-kopurua gehitzen duenez, astakeria politikoa da proposamenari ezetz esatea. Ez zaio ondo iruditzen alderdi Popularra alderdi Sozialista etengabe zirikatzen aritzea, EAJrekin egindako gobernu-ituna aipatuaz; izan ere, alderdi Sozialista jarduera arduratsua burutzen ari da Getxoren onura lortze eta arazoak konpontzea laguntze aldera. Alderdi Sozialistak modu arduratsu horretan jokatzek alderdi Popularrari guztiaren aurrean ezetz esatea errazten dio, jakin badakielako alderdi Sozialistak egoera konponduko duela.

Gomero jaunak adierazi du ez dakiela zergatik haserretu den Almansa jauna, eztabaida horretan inoiz aipatu ez duelako eta beti Gobernu taldearekin eztabaidatu duelako. Gobela ibaiaren kasuan, Almansa jaunak kritikatu egin zuen ezetzaren politika egin eta jendea ikaratzeagatik, proiektua gauzatzeko behar ziren desjabetzeak egiteko udal diruaren aurreikuspen garrantzitsuak behar zirela esan zuenean. Handik urte

porque no obliga, lo razonable sería apartar el PTP en la revisión del PGOU.

El Sr. Almansa manifiesta que el grupo Popular quiere crear problemas de manera artificial para dividir y justificar su postura negativa a todo. Dice que a cada grupo o colectivo les dicen lo que quieren oír, buscando únicamente réditos electorales, sin tener en cuenta el interés general del municipio. Opina que el PTP nada tiene que ver con las propuestas que se presentan, que buscan que se construyan más viviendas de VPO. Estima que la redensificación en la zona de Ormazo sería una locura urbanística por su impacto, y que la propuesta de Zubilleta ya incrementa el número de viviendas de VPO, por lo que califica de barbaridad política la negativa a la misma. Critica que el grupo Popular constantemente esté provocando al grupo Socialista con alusiones a un pacto de gobierno con el PNV, cuando lo que el grupo Socialista está realizando es una actuación responsable buscando el beneficio de Getxo, colaborando en que se solucionen problemas, y que esta actuación responsable del grupo Socialista facilita al grupo Popular una oposición de no a todo lo que se plantee, porque sabe que el grupo Socialista resolverá la situación.

El Sr. Gamero indica que no entiende el enfado del Sr. Almansa cuando en ningún momento le ha nombrado en su debate, ya que se ha limitado a debatir con el equipo de Gobierno. Le recuerda que en el caso del río Gobela el Sr. Almansa le criticó por hacer una política del no y asustar a la gente, al manifestar que había que hacer previsiones importantes de dinero municipal para acudir a expropiaciones

eta erdira, jarduera hori udalerriak egin behar izan du. Errepikatu du alderdi Popularrak babestutako etxebizitza gehiago nahi dituela jende gaztea Getxora eramatearren; horretarako, etxebizitza gehiago eraiki behar dira hiriguneetan, era berean Andra Mari bezalako beste zona batzuk deskargatze aldera. Amaitzeko adierazi du proposamenetan hiri-antolamendua jorratzen dela, LPP berean egiten den moduan.

Almansa jaunak alderdi Popularrari eskatu dio ez nahasteko tinkotasun politikoa haserreekin. Inkoherentziak eta kontraesanak soilik alderdi Popularrean daude. Gogoratu du Gomero jaunak, Erromoko Kultur Etxearen oinarritzko proiektua aurkeztu zenean, oso ontzat jo zuela eta aurkako botoa eman zuela faseka egingo zelako; orain, berriz, aurkako jarreraren justifikazio osoa aldatu dute.

Proposamena bozkatu dute, eta emaitza ondorengoa izan da: aldeko 14 boto EAJrenak, PSE-EErenak eta A-renak eta aurkako 10 PPerenak.

Ondorioz, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen Informazio Batzordeak proposatuta, ondorengoa erabaki zen gehiengoaz:

LEHENA.- Getxoko udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiko aldaketa puntualari, MIGUEL PEREIRA FERNANDEZ jaunak PROMOTORA VIZCAINA ABEE-ren izenean eta ordezkartzan proposatutakoari, hasierako onespena ematea, "Ormaza" 42.2 Egikaritze-

necesarias para ejecutar el proyecto, y posteriormente al de año y medio esa actuación la ha tenido que realizar el municipio. Insiste en que el grupo Popular busca más vivienda protegida y de mejor calidad para atraer a gente joven a Getxo, y que para ello es necesario construir más viviendas en zonas urbanas que posibilite también descargar otras zonas como la de Andra Mari., Finaliza manifestando que las propuestas se refieren a ordenación urbanística, tal y como también se refiere el propio PTP.

El Sr.Almansa pide al grupo Popular que no confunda firmeza política con enfados. Manifiesta que las incoherencias y contradicciones están básicamente ubicadas en el grupo Popular, recordándole que el Sr. Gamero cuando se presentó el proyecto básico de la Kultur Etxea de Romo lo calificó de muy bueno, y fundamentó su voto en contra en que se iba a hacer por fases, y ahora alteran toda la justificación de su posicionamiento contrario.

Sometida la propuesta a votación, obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor del PNV, PSE-EE y A y 10 en contra del PP.

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios, se acordó por mayoría:

PRIMERO.- Aprobar, con carácter inicial, la Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Getxo propuesta por D. MIGUEL PEREIRA FERNÁNDEZ, en nombre y representación de la P.V. PROMOTORA VIZCAINA, U.T.E., para la definición de dos bloques

unitaterako izapidetutako Birpartzelatze proiektuan ateratako 1 partzelan (a, b, c eta d azpipartzelak) eta 6 partzelan (a eta b azpipartzelak) ezarritako bi bloke definitzeko, aurreikusitako eraikigarritasuna bere horretan mantenduaz:

impuestos en las parcelas nº 1 (subparcelas a, b, c, y d) y 6 (subparcelas a y b) resultantes del Proyecto de Reparcelación tramitado para la Unidad de Ejecución 42.2- "Ormaza", manteniendo la edificabilidad prevista:

Eraikina Edificio nº	Solairu-kop. Nº de plantas	Azal. eraikigarria Sup. edificable
1	4	3.290,43 m2
2	3	1.676,50 m2

BIGARRENA.- Akordio hau, barruko espedientearekin batera, jendaurreko informaziora ateratzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta lurraldean hedapen gehien duten bi egunkaritan argitaratuta, HOGEI EGUNEKO epean, azken argitalpenetik kontatzen hasita.

SEGUNDO.- Someter el presente acuerdo, junto con el expediente del que dimana, al preceptivo trámite de información pública, por medio de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia y en dos diarios de los de mayor difusión del territorio, por el plazo de VEINTE DÍAS a partir de la última publicación.

HIRUGARRENA.- Hasierako onespeneren akordioa jakinaraztea, sektorean eskumena duten herri administrazioei, jakinaren gainean egon daitezten.

TERCERO.- Notificar el acuerdo de aprobación inicial, para su conocimiento e informe, a las administraciones públicas con competencias sectoriales.

LAUGARRENA.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 85.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, onespenera akordio honen bidez, gehienez bi urteko epean, ezingo da inolako onarpen, baimen eta lizentziarik eman aldaketaren eremuaren barruan, aurreikusitako erabaki berriekin indarrean dagoen araubide urbanistikoa aldatzen den neurrian.

CUARTO.- Se hace constar de forma expresa que, de conformidad con lo prevenido en el Art. 85.3 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, este acuerdo de aprobación determina la suspensión, por el plazo máximo de dos años, del otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias en el ámbito objeto de la modificación en la medida en las que las nuevas determinaciones previstas supongan modificación del régimen urbanístico vigente.

BOSGARRENA.- Alkatetza-Lehendakariari ahalmena ematea akordio horiek gauzatzeko behar diren

QUINTO.- Facultar a la Alcaldía-Presidencia para dictar cuantas resoluciones resulten precisas en orden

ebazpen guztiak emateko.

a la ejecución de estos acuerdos.

**207.- ESTUDIO K SOZIJETATE
KOOPERATIBAK "ZUBILLETA" 36
EREMURAKO AURKEZTUTAKO
GHAPN-KO ALDAKETA
PUNTUALARI BEHIN BETIKO
ONESPENA EMATEA**

**207º.- APROBACIÓN DEFINITIVA
DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL
DEL PGOUG PARA EL ÁREA 36-
"ZUBILLETA", PRESENTADO POR
ESTUDIO K. SDAD. COOP.**

Proposamena irakurri eta gero Gomero jaunak adierazi du aurreko puntuan esandakoari eusten diola, eta eskerrak eman dizkio Gobernu taldeari hasierako onespenean baino eraikigarritasun handiagoa kontuan hartzeagatik, alderdi Popularrak horixe eskatzen baitzuen. Hala ere, uste du proposamena hobe daitekeela, eta Getxoko beste zona batzuekin batera diseina daitekeela; hortaz, aurkako botoa emango dute. Alderdi Sozialistari esan nahi dio, Getxoko HAPNenean LPP aplikatzeak zero etxebizitza esan nahi badu, onartutakoan emaitza bera izatea espero duela.

Tras darse lectura a la propuesta, interviene el Sr. Gamero que indica que se remite a lo indicado en el punto anterior, y agradece al equipo de Gobierno que haya incorporado una mayor edificabilidad en relación a la contemplada en la aprobación inicial, tal como solicitaba el grupo Popular,. Pese a ello estima que la propuesta es mejorable, y se puede diseñar en coordinación con otras zonas de Getxo, por lo que votarán en contra. Indica al grupo Socialista que si como manifiestan la aplicación del PTP en el PGOU de Getxo supone cero viviendas, espera que cuando lo aprueben tenga ese resultado.

Almansa jaunak gogoratu du LPPean zerotik kopuru mugagabera bitarteko etxebizitzak jasotzen direla, eta ez alderdi Popularrak adierazten dituenak. Alderdi Popularrak azkeneko osoko bilkuran proposatu zuen LPP errekurritzea, legez ezinezkoa zela jakin bazekienean, epe guztiak amaituta baitzeuden. Horrela, serio jokatzeko eta arduratsuak izateko eskatu die.

El Sr. Almansa recuerda que el PTP contempla una horquilla desde cero hasta un número indeterminado de viviendas que no son las que manifiesta el grupo Popular. Recuerda al grupo Popular que planteó en el último Pleno recurrir al PTP cuando sabía que legalmente era imposible por haber expirado todos los plazos, por lo que les pide que sean serios y responsables en sus actuaciones.

Arregi jaunak alderdi Popularraren eskerra eskertu du, baina esan du berdentsifikatzea Gobernu taldeak alderdi Sozialistarekin sinatutako

El Sr. Arregi agradece el reconocimiento del grupo Popular, pero indica que la redensificación se debe al cumplimiento del Plan de

Etxebizitza Plana betetzeari dagokiola. HAPNnearen berrikuspenak kezkatzen du, Getxo osoa hartzeagatik. Horretarako, etxebizitzaren inguruan egin den azterketa berriak datu interesgarriak eskaintzen dituela gehitu du.

Gamero jaunak adierazi du Etxebizitza Plana Gobernu taldeak eta alderdi Sozialistak sinatutako marketing proiektu handia dela. Duela bi urte esan zuten 1.000 etxebizitza eraikiko zirela datozen urtetan; iaz 500 etxebizitza lau urtetan eraikitzen jaitzi ziren; eta, aurten, oraindik ere beherapen handiagoak egin nahi dituzte. Alangoko azken sustapena alderdi Popularrak babesten du, eta duela lau urte hasi ziren prentsan iragarpena egiten. Une batzuetan geratu egin behar izaten dira onak diruditen proiektuak, errealitate ekonomikoak horrela gomendatzeagatik. Eta LPPeari buruzko adierazi du ez dela logikoa egitea emaitza zero etxebizitzakoa bada.

